

ARAUDI AKADEMIKOA

I. ATALA. AURREKARIAK.

IKASKETA PLANAK. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

A. Ikasketa-planak ziklotan artikulatzen dira:

- **Ziklo laburreko ikaskuntzak:** hiru urteko iraupena dute gutxienez. Mota honen barruan oinarrizko irakaskuntzak eta heziketa orokorra sartzen dira, bai eta lanbide-jarduerak egiteko prestaketara bideraturiko irakaskuntzak ere. Hauei esker, diplomatu, injineru tekniko, arkitekto tekniko edo irakasle-tituluak lor daitezke.
- **Ziklo luzeko ikaskuntzak:** Bi ziklo dituzte. Lehenengokoak, bi edo hiru urteko iraupena du eta oinarrizko irakaskuntzak eta orokorrak hartzen ditu; bigarrenean, berriz, -hau ere bi edo hiru urteko iraupenekoa-, ikasketak sakondu eta berezitasunak egin eta lanbide-jardueretarako prestatzen da. Hauei esker, lizentziatu, injineru edo arkitekto-titulua lortzen da.
- **Bigarren zikloa besterik ez duten ikaskuntzak:** Bi urteko iraupena dute gutxienez. Espezializazio mailako irakaskuntzak dira, Lizentziatura edota Injinerutzako lehen zikloa bukatua edota Diplomatu, Injineru Tekniko, Arkitekto Tekniko edo Irakasle tituludunak pasa bai daitezkeen, beti ere Ikasketa planetan ezarritako baldintzak beteaz (Heziketa osagarriak).

B. Kreditu sistema:

Ikasketa Planak "kreditua" erabiltzen du balio-unitate gisa. Kreditu batek hamar eskola-ordutako balioa du eta ikasgai bakoitzak balioespen bat du kreditutan. Ikasgai bakoitzaren programak arautzen duenaren arabera ulertzen da kredituen zatiak mota ezberdinetakoak izan daitezkeela: batzuk eskolako ordu lektiboak izango dira, eta beste batzuk ikasleek burututako lanak eta praktika tutorizatuak.

MUko arautegian adierazten den bezala, MUn ezin da ikasi norberaren kontura, klaseetara etortzea ezinbestekoa da ikasgaia egin ahal izateko. Presentzialitate hori betetzeko arazoak daudenean, ikasleak ikasketen koordinatzaileari idatzi bat aurkeztuko dio bere arazoak azaltzeko."

Ikasgai guztiak kreditutan balioetsirik daude eta ikaslearen curriculumak, ezarritako gutxienezko kreditu-kopurua osatuko duen ikasgaien multzoak eratuko du.

C. Ikasgai motak.

1. Enborrezko ikasgaiak. (EI)

Enborrezko gaiak dira titulu bera lortzeko Unibertsitate guztietako ikasketa plan guztietan nahitaez egon behar dutenak, honela titulua homologatua izan dadin. Hezkuntza eta Kultura Ministerioak kredituen gutxienezko kopurua eta hauen eduki oinarrizkoak zehazten ditu.

2. Hautazko ikasgaiak. (HI)

Unibertsitateak ikasketa-plan bakoitzean libreki ezartzen dituenak dira. Lehenak, nahitaezkoak alegia, ikasleak derrigorrez ikasiko ditu; bigarrenak, ikasleak, bere interesen arabera, Unibertsitateak eskaintzen dizkion gai ezberdinen artean aukeratzen ditu.

3. Aukera askeko ikasgaiak. (AA)

Ikasleak libreki ikasten dituenak dira, bere curriculumak malgutzeko aukera ematen diotelarik. (Begiratu ikasgai hauei buruzko araudia)

D. Aurretiko betebeharrak edo prerrequisitoak

Ikasgai batek beste ikasgai bat edo beste batzuk aurretiko betebeharrak gisa baldin baditu –"ikasgai giltza" izenez ezagunagoak-, ikasmaila altueneko ikasgaia gainditzeko bere aurretikoa gainditu beharko da. Honela, posible da matrikula egitea eta baita azterketara aurkeztea ere, baina ez da gaindituko aurretikoa gainditu arte.

Irakasle Ikasketei dagokionez, 1352/1998 Errege Dekretuak (BOE 2003.28.07) espezialitate bakoitzeko aurretiko betebeharrak ezartzen ditu.

II. ATALA. IRAKASKUNTZA-IHARDUERA ETA EBALUAZIOA

1. Artikulua

1. Ikasmilari batetan matrikulatu den ikasleak honen ezabapena eska dezake akademi ikasturte bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen Fakultateko Idazkariari zuzenduriko eskaera idatzia aurkeztuz.
2. Ezabatutako matrikulengatik ordaindutako diru-kopuruak ez dira inolaz ere itzuliko.

2. Artikulua. Deialdiak

1. Ikasgai batetan matrikulatutako ikasleak bi deialdi agortzeko eskubidea izango du ikasturte bakoitzeko, agortzen duen lehenengoa "ohikoa" izango delarik eta "ezohikoa" bigarrena.

Deialdiak ondoko hauek dira:

- a) Lehenengo lauhilean ematen diren ikasgaiak:
 - o Lehen deialdia: otsailean
 - o Bigarren deialdia: irailean
 - b) Bigarren lauhilabetean ematen diren ikasgaiak:
 - o Lehen deialdia: ekainean
 - o Bigarren deialdia: irailean
 - c) AOIko ikasgaiak:
 - o Lehen deialdia: dagokion modulua amaitzen denean
 - o Bigarren deialdia: irailean
2. Deialdia aurreratzea.
Behemilako irakasgairan bat gainditu gabe duen ikaslea, irakasgaia ematen den lauhileko deialdira aurkeztu beharko da derrigorrez.

Ikasleek deialdia aurreratzeko eskubidea izango dute baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Azkeneko kurtsoa ikaslea izatea.
2. Otsaileko deialdian, deialdi horretako eta behemilako ikasgaien artean, gehienez 13.5 kreditu izatea gainditu gabe.
3. Deialdi hauek aurreratu ahal izango ditu:
 - Ekainetik otsailera.
 - Irailetik maiatzera/ekainera.

Eskaria Idazkaritza Birtualetik egin behar da horretarako ezarriko den epean.

3. Ikasleak sei deialdi izango ditu irakasgaia gainditzeko. Seigarrena epaimahaiaren aurrean egin eta zuzenduko zaio ikasleak horrela eskatzen badu. Horretarako dagokion idatzia aurkeztu beharko du fakultateko idazkaritzan, ekainaren deialdirako azterketa garaia baino 10 eskola-egun lehenago. Epaimahaiak erabakiko du azterketa-eguna, modua eta zuzenketa, bai eta balorazio-irizpideak ere; eta hori guztia interesatuari esango zaio azterketa eguna baino hamabost egun lehenago.
4. Sei deialdiak agortzen dituenak zazpigarren deialdi bat eskatu ahal izango du. Horretarako baldintzak hauek izango dira:

Baldintzak:

1. Karrera osoan behin emango da aukera hori. Eta beti ere deialdiak agortu dituen ikasgai hori dagokion kurtsoan gainditu gabeko bakarra denean, ez bestela (KAP ez da kontuan hartuko).
2. Titulazioko Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du deialdia onartu ala ez, eta honako irizpideei erantzun die: ikasturtean izandako etekin akademikoa, karreraren zehar izandakoa eta harira datozen beste edozein irizpide.

Prozedurak eta ondorioak:

1. Zazpigarren deialdia nahi duen ikasleak, idazki baten bidez eskatuko dio HUHEZIKo dekanuari.
2. Zazpigarren deialdia onartuz gero, eskatzailea gai horretan matrikulatu beharko da eta gai horri dagokion matrikula ordaindu beharko du berau gainditu arte.

3. Azterketa epaimahaiaren aurrean egingo da. Epaimahaia honako hauek osatuko dute: ikasgaiaren irakasle titularra eta ikasgaia atxikita dagoen departamentuko beste bi kide.
4. Deialdi hau gainditzen ez badu, ikasleak zentroa utzi egin beharko du. Gaindituz gero, berriz, ikasketekin jarraitu ahal izango du.
5. Deialdiak agortzen dituzten ikasleek ezingo dituzte ikasketa hauek jarraitu. Halere, onartua izanez gero, beste ikasketa batzuei ekin ahal izango die Unibertsitate honetan beste behin bakarrik.
6. Deialdi kopurua zenbatzerakoan ikaslea aurkezten ez denekoa ere kontutan hartzen da. Ez, ordea, ikasleak deialdiari uko egiten dioenean. Deialdiari uko egiteko honako arauak jarraituko dira:
 - Justifikatu beharrik gabe ikasgai bakoitzeko gehienez bi aurkeztu ahal izango ditu, (kalifikazio aktetan "KE" gisa jasoko da).
 - Gaixotasun-arazoak direla-eta ere, ukoa aurkeztu ahal izango da, (kalifikazio aktetan "KU" gisa jasotzen dena).

Eskubide hauetaz baliatzeko, ikasleak eskaria aurkeztu beharko du idazkaritza akademikoan, dagokion agiria aurkeztuz azterketa-epe barruan "KU" eskatzeko.

'KE' eskariak Idazkaritza Birtualetik egingo dira epea barruan. Epeen berri posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie ikasleei.

Araudi honetan aipatzen ez diren kasuetan, eta baita aipatutakoetan ere, Karreraren Zuzendariak erabakiko du ikasleak deialdiari uko egitearen onarpena, aldez aurretik interesatuak horrela eskatu badu, eskaera justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta dauden arazoak aztertu ondoren.

Deialdiari uko egiteak ez du suposatzen azterketa errepikatzea edo ezarrita dagoen egutegitik kanpo egitea; ikasgai hori gainditzeko aukera hurrengo deialdira atzeratuko litzateke.

3. Artikulua. Ikasmilak errepikatzea eta ikasmilak pasatzea

1. Lehenengo maila. Lehenengo aldiz matrikulatzen direnean. Ikasleak ikasmila errepikatze eskubidea dauka. Errepikatu ahal izateko -lehenengo aldiz matrikulatzen direnek- gutxienez lehenengo mailako 18 kreditu gainditu beharko dute.
2. Ikasmilaz pasatzeko baldintzak. Ikasleak ezin izango du bigarren mailara pasatu, edozein espezialitatetan, lehenengo mailako 19 kreditu edo gehiago zintzilik baldin baditu.
3. Bigarren mailatik aurrera, hurrengo ikasmilara pasatu ahal izango du ikasle batek ikasmilako kredituen %70 gaindituta izanez gero.
4. Azkeneko kurtsoko ikaslea errepikatzailer kontsideratuko da %50 baina gehiago gainditu gabe uzten badu eta beraz kurtsoko matrikula osoa egin beharko du.

4. Artikulua. Ikasgaien baliokidetzak.

1. Ikasleak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du Idazkaritza Akademikoan horretarako zehaztutako epean:
 - Ikasketen ziurtagiri pertsonala, egindako ikasgaiak, lortutako kalifikazioak eta ikasketa-plana agertuko dituen.
 - Baliokidetu nahi diren ikasgaien programak.
2. Titulu ofizial desberdinak lortzera bideraturiko ikasketen artean, eduki eta eskola-zama parekidea duten ikasgaiak baliokidetu dira.

5. Artikulua. Ebaluazioa

1. Ikasleak berdintasun eta justizi bermetasunaz epaituak izateko eskubidea dute, bai eta emaniko irakaskuntzaren mailaren arabera. Ezinbestez, ikasgai bakoitzaren ebaluazio-era ezagutu beharko dute.
2. Ikasgai baten ebaluazioa azterketen bidez, ebaluaketa jarraieraren edo lanen bidez burutu ahal izango da, hauetako bat gutxienez presentziala izan beharko delarik.

3. Azterketa egutegia (egunak eta orduak) ikasleek proposatzen dute eta karrera zuzendariak finkatuko du.
4. Azterketak ez dira egunez aldatuko. Behin egutegia finkatu denean, azterketak ez dira ikasleek beharrezko arabera aldatuko. Deialdi batera aurkezterik ez duenak, araudi honetako 2.6 artikuluan araututako Ukoa erabili dezake eta hurrengo deialdira aurkeztu.
Hala ere Titulazioko Zuzendaritzak kasu oso larrietan ikasle baten azterketa eguna aldatu ahal izango du. Honetarako ikasleak bere espezialitateko koordinatzaileari zuzendu beharko dio eskaria. Eskaria justifikatu egin beharko da eta idatziz aurkeztu.
5. Edozein azterketa egiterakoan, ikasleari bere burua identifikatzeko eska dakiok. Azterketa egingo den baldintzak (azterketara eraman ahal izango den materiala, azterketa gelan sartzeko eta bertatik ateratzeko moduak, zalantzak argitzeko era, etabar...) dagokion ikasgaiko irakasle taldeak zehaztuko ditu, azterketa egileek ezinbestez errespetatu beharko dituztelarik.
6. Azterketak ahozkoak zein idatzizkoak izango dira.
7. Ikasleak azterketa eta kalifikazio notak berrikustea eska dezake. Azterketak berrikusteko epeak eta prozedura Titulazioko Zuzendariak ezarriko ditu.
8. Ikasleak ikasgai bakoitzaren kalifikazioa ebaluaketa ondoren eskuratu ahal izango du Idazkaritza Birtualaren bidez.
AOIko ikasgaien kalifikazioak, berriz, modulu bakoitzaren ebaluazioaren ondoren ikusi ahal izango dira.
Bestalde, ikasturte bakoitzaren amaieran, irailean, paperean jaso ahal izango da Idazkaritzan urteko kalifikazio guztien boletina.

6. Artikulua. Praktikak

Ikasle bakoitzak 32 kreditu bete behar ditu, bi kurtsoan (Practicum I eta II). Bigarren Diplomaturako ikasleek, aldiz, 16 kreditu bete behar dituzte (Practicum II), beti ere Practicum I konbalidatuta badauka.

1. Antolaketa. Praktiken antolaketa Fakultatearen esku dago.
2. Esparrua. Praktiketako 16 kreditu, derrigorrez eskolan (irakaskuntza arautuan) bete behar dira (Haur Eskola, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Hezkuntza Bereziko eskolak...), bakoitzaren espezialitatea kontuan izanik.
3. Ikasleek aukeraketa. Ahal den neurrian, Fakultateak errespetatuko du ikasleek aukeraketa (herria eta erakundea), baina postuak ikastetxeen posibilitateen arabera banatuko dira. Postu batzuen aurrean demanda handiegia egongo balitz, eta ez balego eskatzaileen arteko konponbiderik, postu horiek zozketaz banatuko dira. Honen ondorioz, ikasleak Fakultateak izendatutako eskolan egingo ditu bere praktikak.
4. Koordinazio orokorra. Praktiken koordinatzaile orokorrak zenbait eginkizun du:
 - Antolaketa orokorra: toki banaketa eta antolaketa, ikasleek eskakizunen onarpena, ikasleek Praktika aukeraketaren orientabidea, Fakultateko tutoreen izendapena.
 - Fakultateko tutoreekin harremana.
 - Ebaluazio orokorra.
5. Tutorea. Ikasle bakoitzak Fakultateko tutore bat izango du.
6. Tutorearen eginkizuna. Fakultateko tutoreak eginkizun hauek izango ditu:
 - Ikaslearen praktikak jarraitu: garapena, galderak...
 - Lan pertsonala orientatu eta zuzendu.
 - Ikastetxe edo erakundearen praktiketako arduradunarekin harremanetan egon eta haiengandik informazioa jaso.
 - Praktiketako nota jarri.
7. Ikaslearen ardura. Praktiketara doan ikasleak zenbait ardura du:
 - Praktika denboran lanera joan eta asistentzia puntuala izan.
 - Eskolako edo erakundearen proiektuan parte hartu eta inplikatu.
 - Bere ardurapean dauden gaiak edo lanak prestatu.
 - Eskola edo erakundearekiko eta hezitzaileekiko jarrera profesionala izan.
 - Tutorearen laguntzaz baliatuz, praktikari buruzko lana, pertsonala eta esperientzian oinarritua, egin.

8. Ebaluazioa. Ikasleen ebaluazioa egiteko datu hauek kontuan hartuko dira, biak garrantzitsuak izanik:
- Praktiketako hezitzailearen informea: ardura, beharrezko asistentzia, jarrera lanean, haurrekin, gaien edo lanen prestakuntza...
 - Fakultateko tutorearen informea: ardura, jarrera... praktiketako memoriaren kalitatea.

III. ATALA IKASKETETARAKO BEKAK ETA LAGUNTZAK

1.- Ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorra

Ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrak uztailean argitaratzen dira, eta eskariak egiteko epea urriaren 15era luzatu ohi da.

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza-Saila (EHAAan argitaratuko dena).
- Hezkuntza eta Kultur Ministerioa (BOEn argitaratuko dena)

Eusko Jaurlaritzaren deialdirako inprimakiak Fakultateko Idazkaritza Akademikoan eskuratuko dira. Laguntza hau eskatzeko administrazioz Euskal Herriko auzotarra izan behar da.

Hezkuntza eta Kultur Ministerioaren deialdirako inprimakiak tabako-dendetan eros daitezke. Laguntza hau, administrazioz, Euskal Herriko auzotarra ez den ikasleak eska dezake.

2. Diplomatura: Lehendik diplomatura bat daukan ikasleak ezin du beka eskatu beste diplomatura bat egiteko.

2.-Alecop

Fakultateko ikasle orok aukera du, horrela nahi izanez gero, lan ordaindua egiteko ikaslez osatuta dagoen Alecop izeneko enpresan. Horretarako, Alecopen bertan edo Fakultateko Idazkaritza Akademikoan eskatu inprimakia. Inprimakia beteta entregatu ondoren Alecop-etik deitu arte itxaron behar da.
ALECOP - Tel. 943 712405

3.- Fakultatean bekadun

Ikasturte hasieran, Fakultateko departamentu desberdinetan bekadun bezala aritzeko aukera zabaltzen zaie ikasleei. Deialdia, Fakultateko kortxoetan publikatu ez ezik, karrera bakoitzeko zuzendariak ere egiten du; oinarriak administrazioan daude eskuragai. Karreraren %50 gaindituta duten ikasleek egin dezakete eskaria.

4.- Bekabide

BEKABIDE zerbitzuaren bidez unibertsitateak laguntza bereziak ematen ditu, ordainketak ikasle bakoitzaren gaitasun ekonomikoetara egokituz.

IV. ATALA. ESKOLA ASEGURUA

Eskola Asegurua 1.953.eko uztailaren 17ko Legeak sortzen du (abuztuaren 18ko BOE), ikasleen onurarako gizarte-aurrikuspenera bermatzeko, beroriei babesa eta laguntza egoera txarretan eman ahal izateko, azarezko zein aurrikusgarrietan.

Eskola Aseguruaren aplikaziorako adin-muga 28 urtetakoa da. 28 urtetik gorako ikasleei aseguru berezi bat egiteko aukera ematen zaie, bere kostua fakturaturaz.

Eskola Aseguruaren ondorioetarako, ikaslearen izaerarekin zuzen zein zeharka loturiko jardueretan ikasleak jasan lezakeen edozein gorputz-kalte hartuko da istripuztat, kirol, asanblada, ikasketa-bidaia, praktika edo "karrera amaierako proiektu" edo antzerako jardueretan, baldin eta jarduera hauek unibertsitateak antolatutakoak badira.

V.ATALA. AZKEN XEDAPENAK

- Araudi honetan aurreikusten ez diren kasuetan Batzorde Akademikoak ebatziko du, beti ere ikaslearen eskariz eta kasuan kasuko zirkunstantziak aztertu ondoren.
- Araudi honi egin beharreko ondorengo aldaketak Batzorde Akademikoari dagozkio.

AUKERA ASKEKO KREDITUAK

KONTZEPTUA

Ikasleak libreki ikasten dituen kredituak dira aukera askeko kredituak. Curriculuma malgutzeko eta bere ibilbide akademikoa egiteko aukera ematen diote.

Ikasketa plangintzaren barnean kreditu guztien artean, gutxienez %10 da ikasleek libre aukeratzen duena. Beraz, Irakasle Ikasketetan 21 kreditu dira aukera askekoak (horietatik 9 kreditu plangintza barruan txertatuta daude).

AMORTIZAZIOA. IRIZPIDEAK

Irakasle Ikasketak homologatzen dituen Errege Dekretua kontuan izanda, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan HUHEZIn aukera askeko kredituak amortizatzeke:

1. ENPRESETAN EGINDAKO PRAKTIKAK

Ekainaren 26ko 135211998 Errege Dekretua, (BOE, 1998.07.28), Mondragon Unibertsitateko Irakasle Ikasketak homologatzen dituena. p. 25462:

"Sí, se otorgan por equivalencia, créditos a:

PRACTICAS EN EMPRESAS, INSTITUCIONES PÚBLICAS O PRIVADAS, ETC.

Un estudiante podrá obtener créditos de libre configuración mediante prácticas realizadas en empresas. No podrá exceder del 25% del cómputo total (1 crédito = 40 horas).

Zenbait erakundeetan (GKEak, talde sozialak, erakundeak, parrokiak...) parte hartzea eta lan egitea onartuko da, bereziki gizartearekin inplikazioa eta konpromisoa suposatzen duten lanetan.

Hainbat esparrutan gauza daitezke lan hauek: Hezkuntzan, Kulturean, Aisialdian, Zerbitzu sozialetan...

Kreditu bat betetzeko 40 lan ordu eskatuko dira, eta gehienez bost kreditu izango dira. Arlo honetan lor daitezkeen kredituak inoiz ez dira izango aukera askeko kredituen %25 baino gehiago. Beraz, gehienez, 5 kreditu lor daitezke atal honetan.

Udaleku itxien kasuan, eguneko 10 ordu kontatuko dira.

Oharra: aurkezten diren ziurtagirietan beharrezkoa da zehaztea egindako orduak, **guztira**.

2. HIZKUNTZAK

Ekainaren 26ko 135211998 Errege Dekretua, (BOE, 1998.07.28), Mondragon Unibertsitateko Irakasle Ikasketak homologatzen dituena. p. 25462:

"Sí, se otorgan por equivalencia, créditos a:

TÍTULOS DE IDIOMAS EXTRANJEROS RECONOCIDOS EXPEDIDOS POR ESCUELAS OFICIALES O UNIVERSIDADES EXTRANJERAS.

Un estudiante podrá obtener hasta 12 créditos de Libre Configuración mediante la presentación de Títulos de Idiomas extranjeros reconocidos expedidos por Escuelas Oficiales de Idiomas o Universidades extranjeras.

Hizkuntza Eskola Ofizialek edo Unibertsitateek emandako tituluak baloratuko dira, edozein hizkuntzatan, **euskaran izan ezik**.

Hizkuntza Eskolako tituluak edozein hizkuntzatan honela baloratuko dira:

3. maila gaindituta: 5 kreditu

4. maila gaindituta: 7 kreditu

5. maila gaindituta: 12 kreditu

(Ingelesa: PET) - 3 kreditu

(Ingelesa: FIRST) - 6 kreditu

(Ingelesa: ADVANCED) - 9 kreditu

(Ingelesa: PROFICENCY) - 12 kreditu

Atzerriko Hizkuntza espezialitatean irizpide horrek ez du balio, ikasketen muina ingeles hizkuntza baita.

(Frantsesa: DELF 2. gradua) – 6 kreditu

(Frantsesa: DALF) – 12 kreditu

3. BESTE JARDUERA BATZUK

Ekainaren 26ko 135211998 Errege Dekretua, (BOE, 1998.07.28), Mondragon Unibertsitateko Irakasle Ikasketak homologatzen dituena. p. 25462:

"Sí, se otorgan por equivalencia, créditos a:

▪ **OTRAS ACTIVIDADES.**

Un estudiante podrá obtener créditos mediante la realización de estudios en otras universidades nacionales o extranjeras dentro de los planes vigentes de intercambio de alumnos. La equivalencia de los créditos cursados se efectuará en función de los contenidos cursados en dichas universidades".

3.1. Beste Unibertsitatearen batean edo beste karreraren batean egindako kredituak.

Beste karrera batean gauditutako kredituak aukera askeko kreditu moduan onartuko dira, baldin eta aurretik ikasgairen bat konbalidatzeko erabili ez badira.

3.2. Ikasketa Bereziak.

Musika eta Aisialdiko ikasketa ofizialak onartuko dira eta ziurtagiri ofiziala eskatuko da. Ikasketa hauek zikloka aztertuko dira eta ziklo osoa amaituta izanez gero emango zaizkio ikasleari dagozkion kredituak, zikloak adierazten duen mailaren arabera.

⇒ **Musika:**

Ikasketa ofizialak onartuko dira eta ziurtagiri ofiziala eskatuko da.

Ikasketa ofizial hauetan hiru maila bereizten dira (elementala, erdikoa eta goikoa). Baloratzekoan, mailak ez dira akumulatiboak, eta gorena baloratuko zaio ikasleari. Maila bakoitza honela baloratuko da:

maila elementala - 3 kreditu

erdiko maila - 6 kreditu

goiko maila - 12 kreditu

⇒ **Aisialdia:**

Asialdiaren arloan titulu ofizialak onartuko dira.

Bi maila bereizten dira, erdikoa eta goikoa, ez dira akumulatiboak eta gorena baloratuko zaio ikasleari.

Begirale titulua (edo ekibalenteak: hirugarren adineko begiralea...) - 6 kreditu

Zuzendariaren titulua - 9 kreditu

⇒ **"Elizaren egokitasun adierazpena":**

Apezpiku-batzarrak ematen du titulu hau. HHn eta LHn Erljioa eta Moral katolikoa irakasteko prestatzen du.

Titulu honekin 9 kreditu amortizatuko dira.

3.3. Jardunaldiak, ikastaroak.

Curriculumetik kanpo, baina irakaskuntzarekin lotuta, ikasleak egiten dituen ikastaroak eta jardunaldietan partehartzea onartuko dira.

Arlo honetan ikastaroetako orduak honela baloratuko dira:

Unibertsitateak antolatutako ikastaroak - kreditu bat: 10 ordu

Jardunaldiak - egun bat: kreditu bat

Beste ikastaro batzuk - kreditu bat: 20 ordu

Atal honetan gehienez 9 kreditu onartuko dira.

4. IKASLEEN DELEGATUAK

Kurtsoko delegatu funtzioak betetzeagatik kreditu bat (kursoko) emango zaio ikasleari bere lana egoki bete badu.

5. MONDRAGON UNIBERTSITATEAN EGINDAKO KREDITUAK

MUK eskaintako aukera askeko kredituak egiteko aukera izango du ikasleak. Kasu bakoitzean ezarritako kredituen kopurua kontatuko da.

6. BESTERIK

Maila unibertsarioa ez duten ikasketak edo ikastaroak ez dira onartuko. Adibidez, mekanografia, lehen-sorospen edo laguntzarako ikastaroak...

Ilido berean, Irakasle Ikasketetako curriculumean aztertzen diren gaien inguruko ikastaroak ez dira onartuko aukera askeko kreditu moduan. Adibidez, lehenengo mailako Baliabide Informatikoetako ikasgaiari hainbat programa informatiko ematen dira. Beraz, programa horiei buruzko ikastaroak ez dira onartuko.

PROZEDURA

Ikasleak Idazkaritza Akademikoan eskatuko du kredituak amortizatzea. Eskaera hori bi epetan egingo da:

1. epea	urria-azaroa
2. epea	martxoa-apirila

MUk eskaintzen dituen ikasgaiak ikaslearen espedientean agertuko dira bere kalifikazioarekin.

Onartutako kredituek ez dute kalifikapenik izango. Onarpena eta emandako kredituen kopurua agertuko dira ikaslearen espedientean.

Mondragon Unibertsitateak eskainitako aukera askeko kredituen artean, ikasleak aukeratu eta matrikula bi epetan egingo du:

1. epea	azaroa-abendua
2. epea	maiatza